

KOD.: A211

Lanpostuaren izena: **JARDUERA SOZIOKULTURALEN KUDEAKETA**

***LEHEN ARIKETA
BIGARREN PROBA***

***Denbora, gehienez: 100 minutu
Galderak: 100.***

EREDUA:	D
---------	----------

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredu.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

- 1.- Kulturaren definizioa, UNESCOren arabera, hau da:
- Gizarte edo talde sozial baten jokabidea abiapuntutzat harturik egindako eraikuntzatzat jo daiteke kultura.
 - Giza jakintzak lantzearen emaitzatzat jo daiteke kultura, batez ere arteekin, literaturarekin, poesiarekin eta antzerkiarekin zerikusia dutenak.
 - Gizarte edo talde sozial bat ezaugarritzen duten bereizgarrien, ezaugarri espiritual eta materialen, intelektual eta afektiboen multzotzat jo daiteke kultura.
 - Lortutako jakintzatzat jo daiteke kultura, zein baliatzen baitute pertsonak beren esperientzia adierazteko eta jokabideak sortzeko.
- 2.- Zein legetan arautzen du jabetza intelektualak?
- Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateratua, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia.
 - Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateratua, apirilaren 12ko 1/1998 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia.
 - Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateratua, apirilaren 18ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia.
 - Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateratua, apirilaren 18ko 1/1998 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia.
- 3.- “Kulturaren 21 Agenda: EKINTZAK” agiria:
- Hiri eta gobernu lokal batuen konpromisoa berritzen du, herritarrak, kultura eta garapen iraunkorra estuki erlazionatzeko.
 - Europar aplikatu ahal izango den tresna izan nahi du.
 - Hiri eta gobernu lokalek 2003an onetsitako Kulturaren 21 Agendaren osagarria da.
 - Aurreko hirurak zuzenak dira.
- 4.- Gasteizko Kultura Plan Estrategikoa ezartzeko aukeratutako antolakuntza-eredua:
- Oraindik ez da aukeratu antolakuntza-eredua. Prozesuan dago.
 - Esparru politikoa eta teknikoa eta kultur eragileak biltzen ditu talde eragilean.
 - Kultura Elkarguneak eta kultur eragileek sektoreka osatutako eredua da.
 - Eredu mistoa da, talde eragile batek eta lantaldeek osatua.
- 5.- Gasteizko Udalaren kultur proiektuetarako dirulaguntza-deialdia —2018 urtea— arautzen zuten oinarrietan, balioespen-irizpide hauek ezarri ziren: (Aukera ezazu **OKERREKOA**)
- Euskararen erabilera, proiektuaren garapenean.
 - Genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzen garapena.
 - Gazteen parte-hartzea sustatzen duten ekintzen garapena.
 - Tolerantzia eta kultura-aniztasuna sustatzen dituzten ekintzen garapena.
- 6.- Lau artistaren izenak eta 2018an erakusketa egin zuten lekuak adierazi ditugu ondoren. Aukera ezazu **OKERREKOA**.
- Menchu Lamas / Artium museoa.
 - Irantzu Lekue / Amárica aretoa.
 - Txaro Arrazola / Zas Kultur Espazioa.
 - Anabel Quincoces / Montehermoso.
- 7.- Montehermoso kulturuneak badu programa bat, zinema ez-komertzialari eskainia, proiektzioak, ikastaroak, lantegiak eta hitzaldiak biltzen dituena:
- Zineleku.
 - Zinema gaur.
 - Kortxeak & Krispetak.
 - Zineteka.

8.- Hauek parte har dezakete FotoArte argazki-lehiaketan:

- a) 16 urtetik gorakoek.
- b) 16 urtetik gorakoek, argazkilari profesionalek izan ezik.
- c) Gasteizko 16 urtetik gorako pertsonak, edo hirian bizi nahiz lan egiten dutenek.
- d) edonork.

9.- Gasteizko Udalaren gizarte-etxeen funtzionamendu-markoaren arabera, zonako talde tekniko(k)... (Aukera ezazu **OKERREKOA**)

- a) jardute-zonako behar eta eskariei erantzuten die, bertako errealitatearen ezagutza abiapuntutzat hartuta.
- b) zonako egoeraren diagnosi-azterlana egiten du.
- c) dauden lan-prozedurak mantendu, eguneratu eta hobetzen ditu.
- d) zonako gizarte-eragileen eta gizarte-etxeen arteko informazio- eta komunikazio-bitartekoa da.

10.- Udal sareko antzoki hauetatik, zeinek du edukierarik handiena?

- a) Beñat Etxepare antzokia.
- b) Federico García Lorca antzokia.
- c) Félix Petite antzokia.
- d) Jesús Ibáñez de Matauco antzokia

11.- Kultur proiektu baten ebaluazio-adierazleek ezaugarri hauek eduki behar dituzte: (Aukera ezazu **OKERREKOA**)

- a) Helburuei lotuak.
- b) Proiektua garatu ahala egokitzeko modukoak.
- c) Neurgarriak.
- d) Testuinguruaren aldakuntza txikiekiko sentiberak.

12.- Zein izen du gazteak parte-hartzearen alorrean hezteko Gazteria Zerbitzuak duen programak?

- a) Gazte Hitzak.
- b) Hiretu Hiria.
- c) Gaztegunea.
- d) Gazte kluba.

13.- Sei jarduera-eremu ezartzen ditu Gasteizko IV. Gazte Planak. Aukera ezazu **OKERREKOA**

- a) Emantzipazioa.
- b) Herritarrak
- c) Zeharkakotasuna.
- d) Parte-hartzea.

14.- Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak kudeatzen dituen ekipamenduak dira Elkarteen etxeak, eta ezaugarri hauek dituzte:

- a) Lokalak uzten zaizkie eskatzen duten elkarteei, eskabideen iriste-hurrenkeran, espazioak agortu arte.
- b) Alokairua ordaindu behar da erabiltzeagatik, Udalaren ordenantza fiskaletan sartuta dauden baliabideak izaki.
- c) Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan izena emanda dagoen edozein elkarteri lagatzen zaio zenbait espazioren erabilera puntuala egiten, lekurik izanez gero.
- d) Prekarioko lagapenak egiten zaizkie elkarteei, instalazioa abandonatzea erabaki arte.

- 15.- Udaleko Gazteria Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuen artean hauek daude: (Adierazi **OKERREKO** erantzuna)
- Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoa.
 - Gaztebidaiak.
 - Partaidetzarako hezkuntza, Hiretu Hiria.
 - Sexualitate-aholkularitza, aholkularitza psikologikoa eta juridikoa.
- 16.- Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, obra bat babestuta egon dadin, erregistratu beharra al dago?
- Bai, jabetza intelektualaren erregistroan inskribatu behar da, dagokion entitatean.
 - Ez da nahitaezkoa jabetza intelektualaren erregistroan inskribatzea.
 - Erregistratu egin behar da, ala ez, jabetza intelektuala kudeatzen duen entitate bakoitzak ezarritako irizpideen arabera.
 - Guztiak okerrak dira.
- 17.- *Kulturaren 21 Agenda*. *EKINTZAK* agiriak gobernu lokalen eta sektore desberdinen arteko konpromisoak jasotzen ditu. Horien artean sartzen dira:
- Kultura eta biodibertsitatea.
 - Kultura, arkitektura eta hirien planifikazioa.
 - Kultura eta hezkuntza, eta kulturaren gobernantza.
 - Kultura eta publikoaren garapena.
- 18.- Hainbat atalek osatzen dute Udaleko Kultura Zerbitzua. Aukera ezazu **OKERREKOA**.
- Artxiboaren Atala.
 - Luis Aranburu Musika Eskolaren Atala.
 - Kultur Ekintzen Atala.
 - Folklore Akademiaren Atala.
- 19.- Adieraz ezazu, kultur ekitaldi hauetatik, zein den zaharrena Gasteizen:
- Magialdia.
 - Azkena Rock jaialdia.
 - FesTVal.
 - Kaldearte.
- 20.- Zenbatgarren edizioa izan du FotoArte argazki-lehiaketak 2018an?
- XII.a.
 - XIII.a.
 - XIV.a.
 - XV.a.
- 21.- Zerbitzu hauetatik, zein eskaintzen du Montehermosoko Mediateka edo dokumentazio-zentroak?
- Online eremua.
 - Erakusketei buruzko dokumentazio-eremua.
 - Proiektzio-eremua.
 - Aurreko guztiak zuzenak dira.
- 22.- Kultura Zerbitzuko teknikariek kudeatzen dute, oro har, gizarte-etxeetako erakusketa-espazioen lagapena. Eskabidea elkarte batek, GKE batek edo interes publikoko beste entitate batek egiten badu:
- erakusketaren edukiak nagusiki kulturala edo artistikoa izan behar du.
 - erakusketaren edukiak, partez behintzat, kulturala edo artistikoa izan behar du.
 - erakusketaren edukiak ez du zertan kulturala edo artistikoa izan.
 - gizarte-etxeeko koordinatzailearen mende egotera igarotzen da kudeaketa.

- 23.- Arte plastikoekin zerikusia duten espazio hauetatik, zein ez dago aktibo Gasteizen gaur egun?
- ARTgia.
 - Espazioa.
 - ZAS Kultur espazioa.
 - Trayecto galeria.
- 24.- Udalaren Antzoki Sareak hainbat ziklo antolatzen ditu ohiko programazioaren barruan: Aukera ezazu **OKERREKOA**
- XXI. mendeko flamenkoaren zikloa.
 - Musika elektronikoaren zikloa.
 - “Ikuskizuna Ibaiondon” zikloa.
 - JIM Aktual zikloa.
- 25.- Ebaluazioaren edukien arabera, hauen adierazleak daude:
- Helburuak, definizioa, kudeaketa, ekoizpena.
 - Testuingurua, emaitzak, prozesua, eragina.
 - Plangintza, ekintzak, kudeaketa, eragina.
 - Testuingurua, helburuak, prozesua, ekoizpena.
- 26.- Gazteentzako Aholkularitza Juridikoa Gazteria Zerbitzuaren programa da, adin-tarte honetako gazteei zuzendua:
- 12 eta 29 urtekoak.
 - 14 eta 30 urtekoak.
 - 16 eta 30 urtekoak.
 - 16 eta 35 urtekoak.
- 27.- Udalaren IV. Gazte Planean gazteriaren alorreko udal politikaren ildoak eta jarduerak jasotzen dira, urte hauetarako:
- 2016-2019.
 - 2017-2019.
 - 2017-2020.
 - 2016-2020.
- 28.- Herritertasunerako Eskola Irekia(k)...
- Euskal Herriko Unibertsitatearekiko lankidetzaren hitzarmen baten bitartez kudeatzen den zerbitzua da.
 - Herritarren Partaidetzaren Udal Planaren 3. ildoko —Partaidetzaren kultura hobetzea— ekintzetako bat da.
 - edozein ikastaro egiteko matrikula egitea eta dagokion tasa ordaintzea eskatzen den zerbitzu bat da.
 - ikasturterako egitarau bat garatzen du, udal zerbitzu teknikoek diseinatua.
- 29.- Iñaki López de Aguiletak *Cultura y ciudad* liburuan dioenez, zein hiru elementuk legitimatzen dute ekintza politikoa kulturaren?
- Kulturaren industria, jakintza, ondarea.
 - Gobernantza, garapena, jakintza.
 - Kritika soziala, askatasuna, identitatea.
 - Garapena, zeharkakotasuna, partaidetza.
- 30.- Zein da jabetza intelektualaren eskubideen iraupena?
- Egilearen bizitza.
 - Egilearen bizitza eta hil ondoko hirurogeita hamar urteak.
 - Beste eskubide batzuk daude eskubide moralentzat eta beste prestazio batzuentzat, baita 1987. urtea baino lehenago hildako egileen obrentzat ere.
 - b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

31.- Gasteizko Kultura Plan Estrategikoak atal bat eskaintzen die lan-ildoei, eta lau ezartzen ditu, berriaz. Aukera ezazu **OKERREKOA**

- a) Kultura guztion eskura jartzea.
- b) Tokiko sorkuntzaren aldeko apustua.
- c) Kudeaketaren bikaintasuna, kultur eragileekin elkarlanean.
- d) Kulturaren gobernantza: demokrazia eta partaidetza.

32.- Gasteizko kultur erakunde hauetatik, zein ez da fundazioa?

- a) Arte eta Lanbide Eskola.
- b) Sancho el Sabio.
- c) Artium.
- d) Goi-mailako Arte eta Diseinu Eskola.

33.- Ordena itzazu kultur programa eta ekitaldi hauek kronologikoki, urtean zehar:

- a) Dibertikale / Big Band Festival / Magialdia.
- b) Magialdia / Dibertikale / Big Band Festival.
- c) Dibertikale / Magialdia / Big Band Festival.
- d) Big Band Festival / Dibertikale / Magialdia.

34.- Gasteizko musikaren esparruarekin zerikusia dute honako hauek: (Aukera ezazu **OKERREKOA**)

- a) Talde Gune.
- b) Urban Concept.
- c) Zurrumbilo jaialdia.
- d) Bernaola jaialdia.

35.- Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailaren oroitidazkiaren arabera, eta Montehermoso kulturuneari gagozkiolarik, aukera ezazu **OKERREKO** baieztapena:

- a) Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko zenbait ikaslek beren proiektuak ekoitzi, erakutsi eta zabalkundea emateko aukera dute.
- b) Montehermosoren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearen arteko hitzarmena abiapuntu dela garatzen da proiektu artistikoen deialdia.
- c) Proiektu artistikoen 2017ko deialdira 83 proiektu aurkeztu ziren.
- d) Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, Montehermoso kulturunearekin batera, sorkuntza artistikorako deialdi bat egiten du.

36.- Ezaugarri hauek aitortzen dizkio Kaleidos fundazioak gertuko ekipamenduari: (Adieraz ezazu **OKERREKOA**)

- a) Titulartasun publikoa.
- b) Nolabaiteko balio-aniztasuna duten eraikin eta lekuak.
- c) Herritarren nolabaiteko integrazioa dakarten zerbitzuak eskaintzen dituzten ekipamenduak.
- d) Kultur zerbitzuak, kirol zerbitzuak eta zerbitzu sozialak integratzen dituzten espazioak.

37.- David Rosellóren arabera, testuinguruaren analisisa —kultur proiektu bat lantzeko beharrezkoa— honen analisisetik abiatuta definitzen da: (Aukera ezazu **OKERREKOA**)

- a) Lurralde-dinamika.
- b) Sektore-dinamika.
- c) Beste politika batzuetan txertatzea.
- d) Ildo estrategikoak.

38.- Sail honetan sartuta dago Gazteria Zerbitzua:

- a) Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila.
- b) Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila.
- c) Herritarren Partaidetzaren eta Gizarte Etxeen Saila.
- d) Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saila.

39.- Gasteizko Udalak egindako “Gizarte-sareei buruzko azterketa, Gasteizko gazteen artean” azterlanaren arabera, hauek dira 12 urtetik 18ra bitarteko gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak:

- a) Instagram, Twitter eta WhatsApp.
- b) Youtube, WhatsApp eta Instagram.
- c) Youtube, Snapchat eta Instagram.
- d) Snapchat, WhatsApp eta Instagram.

40.- Herritarren parte-hartze organoei gagozkielarik:

- a) Gaur egun elkarten ordezkariak dira elkargune eta auzoguneetako lehendakariak.
- b) Elkargune eta auzoguneetan parte hartu nahi duten banakoek eskabidea aurkeztu behar diote joan nahi duten organoari.
- c) Gasteizko Gizarte Kontseiluan ez dute parte hartzen udal talde politikoek.
- d) Elkarte eta auzoguneen bilerak hiru hilean behin deitzen dira, eta udal zerbitzu teknikoen ardura da gai-zerrendak egitea.

41.- Estatuaren papera, kultur politiken bultzatzaile eta sustatzaile gisa, honetan oinarriturik justifikatzen da:

- a) Herritarren kulturarako eskubidearen aitortpena.
- b) Sektorearen munta, duen garrantzi ekonomikoa dela eta.
- c) Gizarte garaikideen aisialdi-eskariari erantzuteko premia.
- d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

42.- Baimena behar al da Interneten zabaldutako obra eta prestazioak erabiltzeko?

- a) Ez, jabari publikokoak baitira.
- b) Bai, beti.
- c) Ez, 1958 baino lehenagoko obrak badira.
- d) Bai, irudiak badituzte.

43.- Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak kudeatzen duen materiala mailegatzeko zerbitzua...

- a) edozein herritarrek erabil dezake, eta entitate publiko nahiz pribatuek.
- b) tasa eta prezio publikoen ordenantzan jasota dagoen zerbitzua da.
- c) materiala erabiliko den lekura bidali eta jasotzeaz arduratzen da.
- d) doako zerbitzua da, baina fidantza bat jarri beharra dago, materiala erabili bitartean.

44.- Gasteizko Plan Estrategikoaren diagnostikoaren txostenean kulturak hirian duen egoeraren analisisia aurkeztu zen, abiapuntutzat harturik, besteak beste:

- a) Teknikariei zuzendutako saio presentzialak.
- b) Kultur eragileei zuzendutako saio presentzialak.
- c) Kultur eragileei egindako elkarrizketak.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

45.- Hau da Gasteiz Antzokiaren proiekturako proposatutako kokapena:

- a) Eskoriatza-Eskibel jauregia.
- b) Ruiz de Bergatarren jauregia.
- c) Gobeo-Gebara jauregia.
- d) Maturana-Berastegi jauregia.

46.- San Anton eguneko zozketa tradizionala, zein 1781. urtean egin baitzen lehenengo aldiz, hemen egiten da gaur egun:

- a) San Prudencio egoitza.
- b) Udaletxea.
- c) San Petri eliza.
- d) Espainia plaza.

- 47.- Lengoia eszeniko berrien inTACTO jaialdiak, zein espaziotan egin du azken edizioa?
- Principal antzokia.
 - Jesús Ibáñez de Matauco antzokia.
 - Baratza aretoa.
 - Artium museoa.
- 48.- Gizarte-etxeetan ematen diren jarduera artistikorako hastapen-ikastaroetan eta kultura-ikastaroetan, nolabaiteko deskontua edo murrizketa dute, matrikularen prezio orokorraren gainean, kolektibo hauek:
- Langabeak, 30 urte arteko gazteak, 60 urtetik gorakoak eta udal instalazioetako abonatuak.
 - Langabeak, 30 urte arteko gazteak, 60 urtetik gorakoak.
 - Langabeak, 30 urte arteko gazteak eta udal instalazioetako abonatuak.
 - Langabeak, 60 urtetik gorakoak eta udal instalazioetako abonatuak.
- 49.- Gasteizko gizarte-etxeen sarearen antolakuntzako zonen banaketak hainbat gizarte-etxe eta ekipamendu sar ditzake zona berean. Aukera ezazu **OKERREKOA**
- Iparralde gizarte-etxea eta Pilarreko gizarte-etxea.
 - Ibaiondoko gizarte-etxea eta Abetxukuko kiroldegia.
 - Hegoalde gizarte-etxea eta Ariznabarreko gizarte-etxea.
 - Aldabeko gizarte-etxea eta Landazuriko kiroldegia.
- 50.- Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek —horien artean Gasteizko udal sarekoek— dokumentuen mailegu digitalerako zerbitzu bat eskaintzen dute, honela deitua:
- eBiblio.
 - eLiburutegia.
 - Biblioklik.
 - Liburuklik.
- 51.- Kultur proiektu bat diseinatu eta lantzeari gagozkiolarik, zer dira honako hauek: datu-erregistroak (erroldak, estatistika eta abar), inkestak, elkarrizketak eta eztabaida-taldeak?
- lurralde-dinamikaren analisirako metodoak.
 - ebaluazio-elementuak.
 - ebaluaziorako adierazleak.
 - a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 52.- Gazteria Zerbitzuaren ekimen hauetatik, zeinek ditu fase hauek: lehiaketa, sorkuntza-lantegia tutorearekin eta erakusketa?
- Gazte Klik Klak.
 - Gazte Arte.
 - Tetrapack.
 - Gazte Factory.
- 53.- Gazte Informatzaileen Sarea izeneko programak gazteentzat interesgarria den informazioa hainbat informazio-lekutan deszentralizatzen du, gazteak berak bitarteko direla. Hainbat baliabide dituzte informazio-leku horiek. Ondoren zerrendatzen direnetatik, adierazi zuzena:
- Informazio-taula.
 - Plasma-pantaila.
 - Snapchat kontua.
 - Erabilera publikoko ordenagailua, Interneterako sarbidea duena.
- 54.- Ludoteka eta ludoklubak aisialdi eta denbora libreko zerbitzuak dira, organikoki honen mende daudenak:
- Gazteria Saila.
 - Herritarren Partaidetzaren eta Gizarte Etxeen Saila.
 - Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saila.
 - Gizarte Etxeen Saila.

55.- Partaidetza-prozesuei gagozkielarik...:

- a) Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua arduratzen da Udalaren partaidetza-prozesuak diseinatu eta kudeatzeaz.
- b) partaidetza-prozesu bat aurkezten delarik, argi eta garbi ezarri behar da noraino heltzen den eta zein muga dituen.
- c) Udalaren erabakiak berresteko egiten da partaidetza-prozesu bat.
- d) partaidetza-prozesu batean parte hartzeko talde antolaturen batekoa izan behar da: elkarteak, fundazioak, enpresak, entitate publiko edo pribatuak eta abar.

56.- Zein da kultur politikaren oinarria, Iñaki López de Aguietak *Cultura y ciudad* liburuan dioenez?

- a) Pertsona guztiei kulturarako sarbidea bermatzea.
- b) Gizartearen garapen ekonomikoa bermatzea, kultur ekintzaren bitartez.
- c) Kultur industria bultzatzea, aberastasuna sortzeko tresna gisa.
- d) Kulturarako eskubidea aitortzea, oinarriztat harturik Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Espainiako 1978ko Konstituzioa.

57.- Erantzun hauetatik, zeinetan sartuta dago artista plastikoen jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzen dituen entitatea?

- a) SGAE, AGEDI eta EGEDA.
- b) VEGAP, EGEDA eta DAMA.
- c) DAMA, CEDRO eta EGEDA.
- d) DAMA, AGEDI eta AIE.

58.- Kultura Plan Estrategikoaren diagnostiko-txostenaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko kultur enpresen kopurua, 2009-2014 aldian...

- a) mantendu egin zen.
- b) pixka bat hazi zen.
- c) gutxitu egin zen.
- d) beti izan zen 600etik gorakoa.

59.- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean, Kultur Sustapenaren Arloan, honako hau sartuta dago plan eta proiektuen atalean: (Aukera ezazu **OKERREKOA**)

- a) Kulturaren Behatokia.
- b) Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.
- c) Kulturklik.
- d) Kultura Auzolanean.

60.- Andre Maria Zuriaren jaiak abuztuan izaten dira, urte honetaz geroztik:

- a) 1814.
- b) 1834.
- c) 1864.
- d) 1884.

61.- Gazte edo helduei zuzendutako gizarte-etxeetako jarduera artistikorako hastapen-ikastaroak hizkuntza hauetan eskaintzen dira:

- a) Euskara, gaztelania.
- b) Euskara, gaztelania, elebiduna (euskara eta gaztelania).
- c) Euskara, gaztelania, ingelesa.
- d) Euskara, gaztelania, elebiduna (euskara eta gaztelania), ingelesa.

62.- Gasteizko Udalaren gizarte-etxeen funtzionamendu-markoaren arabera, hiriko auzoetan banatutako udal ekipamenduak dira horiek; bertan kultur, kirol eta prestakuntza zerbitzuak, programak eta jarduerak nahiz izaera soziokomunitarioa dutenak (terminoaren zentzurik zabalenean) eskaintzen zaizkie herritarrei, baita informazioa eta gizarte arreta ere, oinarriztat hartuz...

- a) integrazioa eta parte-hartzea.
- b) zeharkakotasuna.
- c) herritarren eskaerak eta beharrak.
- d) baliabideen arrazionalizatzea eta koordinazioa.

- 63.- Gasteizko Udalaren Liburutegi Sareak antolatzen duen gazteentzako nanoipuin lehiaketan parte hartzeko, hau da karaktere-muga:
- 120.
 - 150.
 - 200.
 - 250.
- 64.- Bloke handi hauetan egituratzen du David Rosellók kultur proiektuak lantzeko proposatzen duen eskema:
- testuinguru-oinarriak, definizioa, ekoizpena eta ebaluazioa.
 - errealitatearen analisia, xedea, helburuak, edukiak, kudeaketa eta ebaluazioa.
 - testuinguruaren analisia, helburuak, ekintzak, kudeaketa eta ebaluazioa.
 - testuinguru-oinarriak, diagnostikoa, helburuak, edukiak, komunikazioa, ekoizpena eta ebaluazioa.
- 65.- Aisialdi eta denbora libreko programa bat da Xtraclub, adin honetako gazteei zuzendua:
- 12 eta 18 urtekoak.
 - 14 eta 18 urtekoak.
 - 12 eta 20 urtekoak.
 - 14 eta 20 urtekoak.
- 66.- Gasteiz Hobetuz programak ezaugarri hauek ditu:
- Udal sailek aurkeztutako proiektu-proposamenak bozka ditzakete herritarrek.
 - Proposamenak aurkezteko Gasteizen erroldatuta egon behar da.
 - Proiektu bat aukeratu ondoren, udal zerbitzu teknikoek egiten dute azken diseinua, proposamena aurkeztu zuten pertsonekin elkarlanean.
 - Herritarrek proposamenak aukeratu ondoren, udal zerbitzu teknikoek txostena egiten dute, bideragarriak diren ala ez.
- 67.- Osatu definizio hau: "... kultur proiektuak sustatu, diseinatu eta gauzatzera zuzendutako jarduera da kultur kudeaketa."
- Eremu pribatutik
 - Eremu publikotik
 - Kulturako profesionalek
 - Edozein eremutik
- 68.- Kultura Plan Estrategikoaren testuak berorren balioei eskainitako atal bat du. Hauek dira balio horietako batzuk:
- Partaidetza eta talde-lana.
 - Irisgarritasuna eta partaidetza.
 - Haurrak eta gazteak, eta genero-berdintasuna.
 - a) eta c) zuzenak dira.
- 69.- Kulturaren Euskal Behatokiari gagozkiolarik:
- Behatokia euskal kultura-sektoreari buruzko azterketak eta prospekzioak egiteko tresna-hornitzaile nagusia da. Ez da jarduera-planen arabera egituratzen.
 - 2018an Kulturaren Euskal Behatokiaren lehen jarduera-plana egin da.
 - Kulturaren Euskal Behatokiaren 2018ko jarduera-planean berrikuntza handiak sartu dira, beste urte batzuen aldean.
 - Kulturaren Euskal Behatokiak 2005az geroztik urtero aurkeztu izan du urteko plana.
- 70.- Andre Maria Zuriaren 2018ko jaien egitarauan ganbera-musikako kontzertuak sartu ziren, espazio honetan:
- Montehermoso kulturuneko klaustroa.
 - Falerina lorategia.
 - Luis Aranburu Musika Eskola.
 - Santa Maria katedrala.

71.- Gasteizko Udalak hainbat konpromiso hartuak ditu, Gasteizko talde eta artista ez-profesionalei zuzendutako Auzo Eszena programan parte hartzen duten talde eta artistekin. Aukera ezazu **OKERREKOA**

- a) Ikuskizuna eskainiko den espazioa lagatzea, entsegua bat egiteko.
- b) Ikuskizuna egiteko argiztapen- eta soinu-teknikari bati dagozkion gastuak bere gain hartzea, gehienez 5 ordu arte.
- c) Artistari leihatilan jasotzen denaren % 80ri dagozkion diru-kopurua ordaintzea.
- d) Sarrera-salmenta kudeatzea.

72.- Kultura Zerbitzuaren menpeko Gizarte-etxeetako Kultur Jardueren Atalaren oroitidazkian, berorren helburu hauek sartzen dira: (Aukera ezazu **OKERREKOA**)

- a) Kulturaren garapena sustatzea, integrazioarako eta gizarte-kohesiorako balio gisa.
- b) Jai-erritualaren kultura ludikoaren gozamina bultzatzea.
- c) Kulturaren eremuan garapen pertsonala sustatzea, jakintza erraztuz eta sorkuntza bultzatuz.
- d) Aisialdi aktibo eta kulturalaren denbora bultzatzea.

73.- Gizarte-etxeen funtzionamendu-organigraman, zeharkako ikusmoldearen eta bultzatu nahi den antolakuntza-kultura berriaren arabera, osagai hauek bateratu behar dira:

- a) Politikoa, zuzendaritzakoa eta teknikoa.
- b) Zuzendaritzakoa, teknikoa eta eragileak.
- c) Politikoa, teknikoa eta herritarrena.
- d) Sailak, zerbitzuak eta atalak.

74.- Udalak Gasteizko gizarte-etxeetan eskaintzen dituen irakurketa-klubetan sartzeari honela egiten da:

- a) klubaren saio guztietarako izena emanez.
- b) hiru hileko izen-ematearen bitartez (hiru hilean behin berri eman daitezke).
- c) saio bakoitzerako izena emanez.
- d) sarrera librea eta doakoa da.

75.- Laburbilduz, esan genezake kultur plangintzako prozesuek bi fase dituztela, eta hurrenkera honetan:

- a) Diagnostikoa eta ekintza-plana.
- b) Merkatu-azterketa eta ekintza-plana.
- c) Merkatu-azterketa eta diagnostikoa.
- d) Kulturaren ageri den egoeraren analisia eta merkatuaren azterketa.

76.- Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuak sustatzen duen hizkuntza-klubak gutxieneko eta gehiengo adinak finkatuak ditu, parte hartu ahal izateko. Zein dira adin-muga horiek?

- a) 14 urtetik 20 urtera.
- b) 16 urtetik 35 urtera.
- c) 12 urtetik 30 urtera.
- d) 14 urtetik 35 urtera.

77.- Herritar-kontsultei gagozkiolarik...:

- a) Gasteizen erroldatutako 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek bozkatu ahal izango dute herritar-kontsultetan.
- b) Behar bezala erregistratutako elkarteek eta udal talde politikoek bakarrik sustatu ahalko dituzte herritar-kontsultak.
- c) Sektore- edo lurralde-eremuko kontsultetako bozketak modu presentzialean nahiz bitarteko elektronikoak baliatuz egin daitezke.
- d) Herri-galdeketa bat egiteko herri-ekimen baten eskabidea aurkeztu ondoren, eta Udalak onartzen duela, kontsultarako deialdia egingo da.

- 78.- Nicolás Barbierik *Cultura, políticas públicas y bienes comunes: hacia unas políticas de lo cultural* artikuluan aipatzen dituen ondasun komunak...
- ez dira ez espazioak, ez helburuak.
 - governantza-sistemak dira, edo kudeaketa partekatukoak.
 - baliabide batzuek, baliabide horiek partekatzen dituzten komunitateek eta komunitate horiek garatutako arauak osatzen dituzte.
 - Aurreko hirurak zuzenak dira.
- 79.- Zenbat dira Kultura eta Kirol Ministerioak baimendutako jabetza intelektualaren eskubideen kudeaketarako entitateak?
- 6.
 - 7.
 - 8.
 - 9.
- 80.- Kultur eskubideei gagozkielarik —Kulturaren 21 Agendaren konpromiso gisa—, eta hori osatzen duten ekintzei, adieraz ezazu **OKERREKOA**:
- Kultur politikek arreta berezia eskaintzen diete pertsona eta talde ahulenei.
 - Kultur politikek beren gain hartzen dute beren erantzukizuna, eskubide eta askatasunei dagokienez.
 - Kultur politikek laguntza ematen diete arteei, diziplina batzuk eta besteak aintzat harturik.
 - Kultur politikek inplizitu daramatzate genero-politikak.
- 81.- Zein da konpartsa bateko kideen gutxieneko kopurua, Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuak inauterietan parte hartzeko ematen dituen dirulaguntzen deialdira aurkezteko?
- 25.
 - 50.
 - 75.
 - 100.
- 82.- Erraldioen eta Buruhandien konpartsak...
- 2017an ospatu zuen urteurrena.
 - 2018an ospatu zuen urteurrena.
 - 2019an ospatuko du urteurrena.
 - 2020an ospatuko du urteurrena.
- 83.- Kaleko arte eszenikoen KaldeArte programaren helburuen artean dago... (Aukera ezazu **OKERREKOA**)
- Kalea kultur zabalkunderako espazioa bihurtzea.
 - Ohiko antzerkiaz bestelako arte eszeniko motak erakustea.
 - Erreferentea izatea ikuskizunen salmenta eta banaketan.
 - Kalea kultur sorkuntzarako espazioa bihurtzea.
- 84.- Aipatzen diren elkarguneetatik, zein ez da existitzen gaur egun?
- Auzokoen Partaidetzaren Elkargunea.
 - Gizarte Gaien Elkargunea.
 - Haur eta Nerabeen Elkargunea.
 - Osasun eta Kontsumoko Elkargunea.
- 85.- Butaka Txikia programa Eguberrietan izaten da, gizarte-etxeetako antzoki eta ekitaldi-aretoetan. Adieraz ezazu zentro hauetatik zeinetan ez den programa horretako emanaldirik izan azken bi edizioetan:
- Aldabe.
 - Arana.
 - Arriaga.
 - Hegoalde.

86.- Kultur proiektu baten ebaluazioan, beste hitz batzuk erabili ohi dira, ñabardura desberdinekin. Oroitidazkiari gagozkiolarik:

- a) Gehiago egiten dio erreferentzia ebaluazio-prozesuari, haren emaitzei baino. Bere izaera iraunkorra azpimarratzen du.
- b) Ebaluazio-prozesuaren izaera hierarkikoa nabarmentzen da.
- c) Gehiago erabiltzen da sektore pribatuan.
- d) Ebaluazioaren emaitzak biltzen dituen azken dokumentuari egiten dio erreferentzia.

87.- Hauek dira Gasteizko Udalaren IV. Gazte Planaren ardatzak:

- a) Berrikuntza, zeharkakotasuna, euskara eta erantzunkidetasuna.
- b) Genero-ikuspegia, aukera-berdintasuna, zeharkakotasuna eta partaidetza.
- c) Partaidetza, gazteen protagonismoa, erantzunkidetasuna eta euskara.
- d) Berrikuntza, partaidetza, gazteen protagonismoa eta zeharkakotasuna.

88.- Gasteiz Hobetuz programan,...

- a) aurrekontu-muga bat ezartzen da, proposamenak bideragarritzat jo daitezten.
- b) herritarrek bozkatutako proposamen guztiak gauzatzen dira.
- c) gutxienez 100 sinaduraren abala izan behar dute proposamenek, onartuak izatekotan.
- d) bide publikoan eta udal parkeetan egiteko esku-hartzeen ingurukoak izan behar dute proposamenek.

89.- Gasteizko Kultura Plan Estrategikoaren agirian jasota dagoenez, hauek izan dira hori lantzeko partaidetza-prozesuaren faseak:

- a) Diagnostikoa, diseinua eta ebaluazioa.
- b) Diagnostikoa, diseinua —*backcasting* prozesua— eta ebaluazioa.
- c) Diagnostikoa, helburuak eta ebaluazioa.
- d) Diagnostikoa, ekintza-plana eta ebaluazioa.

90.- Film laburren Cortada jaialdiko (2018ko edizioa) atal ofizialera aurkeztutako filmen proiektzioak hemen egin ziren:

- a) Artium.
- b) Vital Fundazioaren aretoa.
- c) Florida zinema-aretoak.
- d) EHUren Arabako campusa.

91.- Gasteizko Udalaren gizarte-etxeen funtzionamendu-markoan jasota dagoenez, funtsezko organo hauetan oinarritzen da horien antolakuntza:

- a) Gizarte Arloko zinegotzien koordinazio-organoa, sailen arteko batzordea eta zonako talde teknikoak.
- b) Gizarte Arloko sailak, sailen arteko batzordea eta zonako talde teknikoak.
- c) Gizarte Arloko zinegotziak, Gizarte Arloko sailak eta zonako talde teknikoak.
- d) Gizarte Arloko zinegotzi eta zuzendariak, sailen arteko batzordea eta zonako talde teknikoak.

92.- Principal antzokiaz gain, gizarte-etxe hauetako antzokiak kudeatzen ditu Udalaren Antzoki Sareak:

- a) Hegoalde, Ibaiondo, Iparralde eta Lakua.
- b) Aldabe, Hegoalde, Ibaiondo, Iparralde eta Lakua.
- c) Hegoalde, Ibaiondo, Iparralde, Lakua, Salburua eta Zabalzana.
- d) Aldabe, Hegoalde, Ibaiondo, Iparralde, Lakua, Salburua eta Zabalzana.

93.- Eraginaren adierazleek hau neurtzen dute:

- a) Proiektua txertatzen den ingurunea nolakoa den eta nolako bilakaera duen.
- b) Planteatutako helburuak lortu diren ala ez, eta zenbateraino.
- c) Helburuak lortzeko baliabideen erabilera arrazionala.
- d) Epe luzeko lorpenak.

- 94.- Honako hauetatik, zein ez da Gasteizen berariaz gazteei zuzendutako kultur ekimen baten izena?
- Gazte Sortzaileak.
 - Zineleku.
 - Haziak.
 - Gazteszena.
- 95.- Gasteizko Udalaren IV. Gazte Planaren printzipio gidarien artean daude... (Aukeratu ezazu **OKERREKOA**)
- Berrikuntza, partaidetza eta zeharkakotasuna.
 - Erantzunkidetasuna, iraunkortasuna eta genero-ikuspegia.
 - Aukera-berdintasuna, integritasuna, errespetua eta elkarbizitza.
 - Euskara eta kalitatea.
- 96.- Partaidetza-prozesu hauetatik, adieraz ezazu zein ez den udal sailen batek sustatu eta kudeatua:
- Erdi Aroko hiriguneko gaueko aisialdi arduraturako Ekintza Plana.
 - Udaltzaingoaren eredu berrirantz.
 - Haurren Auzoa prozesua.
 - Gasteizko nekazaritzako elikagaien estrategia.
- 97.- Jarduera-mota hauetatik, adieraz ezazu zein ez den garatzen Herritartasunerako Eskola Irekiaren bitartez:
- HEI - HERRITARREN ELKARBIZITZA.
 - HEI - LAB.
 - HEI - EKITALDIAK.
 - HEI - EZAGUTU GASTEIZ.
- 98.- Ondoren zerrendatzen diren ekitaldiak Gasteizko musika-programazioaren parte dira. Kultura Zerbitzuaren 2017ko azken oroitidazkiaren arabera, zeinek ez zuen jaso Udalaren ekarpen ekonomikorik?
- Gasteiz Calling.
 - Osteguna Rock Festival.
 - Bernaola jaialdia.
 - Aitzina Folk.
- 99.- Zein egunetan ospatzen da Liburutegiaren Eguna?
- Apirilaren 2an.
 - Apirilaren 23an.
 - Urriaren 24an.
 - Azaroaren 24an.
- 100.- Iñaki López de Aguiletak, *Cultura y ciudad* liburuan, zein antropologorena dela dio, kulturaren definizio hau: “Gizakiak gizarteko kide den neurrian bereganatutako jakintza, zientziak, artea, moralak, zuzenbidea, ohiturak eta beste edozein aztura barne hartzen dituen guzti konplexu hori”:
- Alfred Kroeber.
 - Edward B. Taylor.
 - Franz Boas.
 - Theodora Kroeber.